

2002ko hirugarren hiruhilekoan, heriotzak %2,9 gutxitu dira, 2001eko aldi beraren aldean

2002ko uztail, abuztu eta irailean, 4.052 lagun hil ziren; horietatik %53 gizonezkoak ziren, eta %47 emakumezkoak.

2002ko hirugarren hiruhileko honetan 4.052 heriotza izan dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %2,9 gutxiago, Eustaten azkeneko behin-behineko datuen arabera. Lurraldeka, Araban 468 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.293, eta Gipuzkoan 1291.

Heriotza-kausa nagusia tumoreak izan ziren: 1.291 pertsona hil ziren kausa horrengatik (%31,9); haren atzetik, bigarren heriotza-kausa gisa, zirkulazio-sistemako gaixotasunak ageri dira, 1.200 heriotza eragin baitzituzten (%29,6). Hirugarren tokia arnas aparatuko gaixotasunek hartu zuten, 351 heriotza eragin baitzituzten (%8,7).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

2002ko hirugarren hiruhilekoan gertatukoaren artean, 11 heriotza urtebetetik beheragoko hurrei egokitu zitzaizkien: 7 mutikori eta 4 neskatori.

Hazkunde begetatiboak zeinu positiboa izan zuen 2002ko hirugarren hiruhilekoan, 477 laguneko biztanle-gehikuntzarekin. Saldo positiboak izan dira hiru herrialdeetan: Araban 158, Bizkaian 32 eta Gipuzkoan 287.

1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2002ko 3. Hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.052		4.227		4.173	
Gizonezkoak	2.162	53,4	2.206	52,2	2.214	53,1
Emakumezkoak	1.890	46,6	2.021	47,8	1.959	46,9
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.052		4.227		4.173	
Tumoreak	1.291	31,9	1.291	30,5	1.347	32,3
Zirkulazio-sistema	1.200	29,6	1.312	31,0	1.232	29,5
Arnas sistema	351	8,7	391	9,3	340	8,1
Txegoste-sistema	225	5,6	191	4,5	233	5,6
Istripuak	148	3,7	159	3,8	158	3,8
Gainerako gaixotasunak	837	20,7	883	20,9	863	20,7
GIZONEZKOAK	2.162		2.206		2.214	
Tumoreak	813	37,6	795	36,0	847	38,3
Zirkulazio-sistema	568	26,3	600	27,2	548	24,8
Arnas sistema	199	9,2	236	10,7	217	9,8
Txegoste-sistema	117	5,4	93	4,2	136	6,1
Istripuak	108	5,0	113	5,1	108	4,9
Gainerako gaixotasunak	357	16,5	369	16,7	358	16,2
EMAKUMEZKOAK	1.890		2.021		1.959	
Tumoreak	478	25,3	496	24,5	500	25,5
Zirkulazio-sistema	632	33,4	712	35,2	684	34,9
Arnas sistema	152	8,0	155	7,7	123	6,3
Txegoste-sistema	108	5,7	98	4,8	97	5,0
Istripuak	40	2,1	46	2,3	50	2,6
Gainerako gaixotasunak	480	25,4	514	25,4	505	25,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es